



Junta General del
Valle de Roncal
Erronkaribarko
Batzorde Nagusia

ASIER GIL ARTUCH Erronkaribarko
Batzorde Nagusiko idazkariak,

ZIURTATZEN DUT: Erronkaribarko
Batzorde Nagusiak 2023ko abuztuaren 24an
egin ohiko osoko bilkuraren aktak hitzez hitz
ondokoa jasotzen duela:

"2023ko abuztuaren 24ko 11:30ean,
Urzainkiko udaletxeko bilkura-aretoan,
Erronkaribarko Batzorde Nagusiak ohiko osoko
bilkura egin du, Asier Gil Artuch idazkaria
izanik eta Felix Galetx Laiana Batzordeburu
dela, bera eta Eneko Eguiguren Ruiz Urzainkiko
ordezkari gisa agertuz.

Gainerako herrien izenean ondoko
ordezkariak bertaratu dira:

UZTARROZE: Jone Alastuey Garcia

IZABA: Carlos Anaut Abadia

ERRONKARI: Amparo Viñuales Gale eta Jesus
Cruchaga Mainz

GARDE: Ricardo Galan Treviño

BURGI: Ainhoa Elizalde Ojer

BIDANKOZE: Tomas Pasquel Ayechu

Batzordeburuak bilkura hasi eta gai-
zerrendari jarraiturik honako erabaki hauek
hartu dira:

1. PANIFIKATUETAN LIBREKI
LARRATZEKO DATA EZARTZEA

Ohiko gaiari dagokionez, hau da,
panifikatuetan libreki larratzeko data ezartzea,
ordezkarien argibideak eta azalpenak entzun
ondoren, Mankomunitatearen Ordenantzetan
ezarritakoarekin eta gaiari buruz hartutako
erabakiekin bat eta ohiturari jarraikiz,
panifikatuak bihar goizaldean libre uztea
erabaki da.

DON ASIER GIL ARTUCH, Secretario de la
Junta General del Valle de Roncal,

CERTIFICO: Que el Acta de la sesión
ordinaria celebrada por la Junta General del
Valle de Roncal, el día veinticuatro de agosto de
dos mil veintitrés, dice literalmente como
sigue:

"En la Sala Consistorial del Ayuntamiento
de la villa de Urzainqui, siendo las 11:30 horas
del día veinticuatro de agosto de dos mil
veintitrés, con asistencia del Secretario D. Asier
Gil Artuch y bajo la Presidencia del Sr. Alcalde
de la villa de Urzainqui Felix Galetx Laiana, que
concorre representando a esta villa junto con D.
Eneko Eguiguren Ruiz, se reúne la Junta
General del Valle de Roncal, en sesión
ordinaria, concurriendo por las demás villas la
representación siguiente:

POR UZTÁRROZ: Dña. Jone Alastuey García

POR ISABA: D. Carlos Anaut Abadía

POR RONCAL: Dña. Amparo Viñuales Gale y
Jesus Cruchaga Mainz

POR GARDE: D. Ricardo Galán Treviño

POR BURGUI: Dña. Ainhoa Elizalde Ojer

POR VIDÁNAGOZ: D. Tomás Pasquel Ayechu

Abierta la sesión por el Sr. Presidente y
siguiendo el orden del día, fueron adoptados
los siguientes acuerdos:

1. FIJAR FECHA PARA LA LIBRE
PASTURACIÓN DE LOS PANIFICADOS

Sobre el asunto Ordinario referido a fijar
fecha para la libre pasturación o Suelta de los
Panificados, a la vista de las informaciones y
manifestaciones de las distintas
representaciones y en conformidad con lo
estipulado en los Ordenanzas de la
Mancomunidad y acuerdos adoptados sobre el
particular, se acuerda dar la Suelta de los
Panificados mañana al amanecer, según
costumbre.



2. BATZORDEBURUAREN EBAZPENAK

Batzordeburuaren 2023ko uztailaren 28ko Ebazpenaren berri eman da, Jesus Mari Salvador Imizcozi Bidankozen trotxa bat irekitzeko lanak esleitu dizkiona, markatutako etxerako egur-sortak ateratzeko, 3.832,22 euroan (BEZa barne).

3. OGZ-REN ARAUDIA ONESTEA

Aho batez erabaki da Gizarte Ongizateko Batzordeak hartutako erabakia berretsi eta proposatutako araudia onestea. Honako hau zehaztu da araudiko 1.2 puntuan: OGZ taldea gutxienez 4 herrik eta gehienez 7k osatuko dute.

4. ERRONKARIBARKO MANKOMUNITATEAREN ARAUBIDERAKO ORDENANTZEN EGUNERATZEA HASIERA BATEAN ONESTEA

Ikusirik 2023ko uztailaren 14ko osoko bilkuran hartutako erabakia, eta Mankomunitatearen araubiderako ordenantzetan egin nahi diren aldaketak argitu ondoren, Erronkaribarko Batzorde Nagusiak aho batez erabaki du ordenantzen eguneratzea onestea eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, interesa duenak egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izan ditzan. Testua bere espedientearen artxibatu da.

Erronkarik aktan jasotzea nahi du bere proposamena hau zela:

"Bi herri desberdinek hartuko dituzte bi karguak, ezarritako ordenari jarraikiz. Beharrezkoa iruditzen zaigu ziurtatzea 7 udalek

2. RESOLUCIONES DE PRESIDENCIA

Se da cuenta de la Resolución de Presidencia de 28 de julio de 2023 adjudicando a Jesus Mari Salvador Imízcoz los trabajos de la apertura de una trocha para la extracción de los lotes de leña para hogar marcados en Vidangoz por un total de 3.832,22€ IVA incluido.

3. APROBACIÓN DE LA NORMATIVA SSB.

Se acuerda por unanimidad ratificar el acuerdo adoptado por la Comisión de Bienestar Social aprobándose la normativa propuesta, especificándose en el punto 1.2 de la misma que el grupo SSB lo formarán un mínimo de 4 pueblos y un máximo de 7.

4. APROBACIÓN INICIAL DE LA ACTUALIZACIÓN DE LAS ORDENANZAS PARA EL RÉGIMEN DE LA MANCOMUNIDAD DEL VALLE DE RONCAL

La Junta General del Valle de Roncal, tras el acuerdo adoptado en la sesión celebrada el pasado 14 de julio de 2023 y haber aclarado las diferencias acerca de las actualizaciones de las Ordenanzas para el Régimen de la Mancomunidad del Valle de Roncal, acuerda, por unanimidad, aprobar la actualización de dichas Ordenanzas y ordenar su publicación en el Boletín Oficial de Navarra para que una vez publicado toda persona interesada pueda presentar las alegaciones que considere oportunas. El texto queda archivado en el expediente de su razón.

La representación de Roncal quiere que conste en acta que su propuesta ha sido la siguiente:

"Ambos cargos los ostentarán dos pueblos diferentes siguiendo el orden ya establecido. Nos parece necesario asegurar que los 7 ayuntamientos del valle tengan la oportunidad de pasar por estos puestos para conocer y



karguak betetzeko aukera izanen dutela, ezagutzeko, ikasteko eta ekarpenak egiteko. Bi karguen iraunaldia 4 urtekoa izanen da."

5. "GENERAL GARRIDO" KUARTEL MILITARRA ERAISTEKO PROIEKTUARI ONIRITZIA EMATEA

Uztailaren 24an, Madrilgo prokuradorearen komunikazio baten bidez, Auzitegiaren probidentzia jaso zen. Probidentzia horren arabera, 10 egun balioduneko epea eman da (irailaren 4ra arte), Defentsa Ministerioak Yeguaceroseko kuartela eraisteko aurkeztutako proiektua aztertzeko eta, hala badagokio, alegazioak aurkezteko.

Proiektua Santiago Iribarren Santesteban arkitektoari bidali zitzaion, hori aztertu eta Batzordeari gomendioak emateko.

Txosten hori bertaratutakoen eskura jarri ondoren, aho batez erabaki da bertan jasotako gomendioak ontzat ematea eta proiektuari alegazioak egitea, txostenean jarritako hobekuntza-proposamenak adierazita.

Izabako ordezkariak eskatu du alegazio-idazkian Defentsa Ministerioari gogorarazteko obra-lizentzia eta gainerako baimen guztiak eskatu behar dituela.

Batzordeburuari eskumena eman zaio proiektuari oniritzia emateko, alegazio-idazkian eskatutakoak bete ondoren.

6. ERRONKARIBARKO ETXEA BERRITZEKO PROIEKTUA ETA OBRA-ZUZENDARITZA EGITEKO BALDINTZEN AGIRIAK ONESTEA

Erronkaribarko etxea berritzeko jarduketei

aprender y aportar a esta institución. La duración de ambos cargos 4 años."

5. VISTO BUENO AL PROYECTO DEL DERRIBO DEL REFUGIO MILITAR "GENERAL GARRIDO.

El pasado 24 de julio de 2023 se recibe en la Junta comunicación de la procuradora de Madrid remitiendo providencia del Tribunal concediéndose un plazo de 10 días hábiles, que finaliza el 4 de septiembre, para que se analice el proyecto de demolición del refugio de Yeguaceros presentado por el Ministerio de Defensa y, en su caso, formular alegaciones si se entendiera que hay cosas que decir o mejorar.

Dicho proyecto fue trasladado al arquitecto D.Santiago Iribarren Santesteban, encargándole el estudio del mismo para que trasladase a esta Junta las recomendaciones que estimase convenientes.

Puesto dicho informe a disposición de los presentes, se acuerda por unanimidad dar por buenas las recomendaciones en él recogidas y formular alegaciones al proyecto indicando las mejoras descritas en el informe.

La representación de Isaba pide que se incluya en el escrito de alegaciones recordatorio al Ministerio de Defensa su obligación de solicitar la respectiva licencia de obra y todos los demás permisos pertinentes.

Se faculta a Presidencia otorgar el Visto Bueno al Proyecto una vez se cumplan los aspectos exigidos en el escrito de alegaciones.

6. APROBACIÓN DE LOS PLIEGOS PARA LA ELABORACIÓN DEL PROYECTO Y LA DIRECCIÓN DE OBRA DE REFORMA DE LA CASA DEL VALLE.

En relación con las actuaciones para llevar a cabo la rehabilitación de la Casa del Valle de esta Junta General, se acuerda:



dagokienez, erabaki hau hartu da:

1. Erronkaribarko etxea birgaitzeko proiektua eta obra-zuzendaritza egiteko kontratazioa arautuko duten baldintzak onestea, kontratuaren oinarriko lege gisa. Licitazioaren gehieneko prezioa 65.664 eurokoa izanen da (BEZik gabe), 79.453,44 €, BEZa barne. Jarduketa hori prozedura irekiaren bidez esleituko da.

Azaldu da gastua bi zatitan banatuko dela: lehenengoan, proiektua idatziko da (2023an); bigarreanean, lanak eta horien ziurtagiriak eginen dira.

Lanak egiteko gastua 2023ko aurrekontuko 1.9200.6270000 kontu-sailaren kargura finantzatuko da.

7. KAMINEROEN PISUA

Oinarriko Gizarte Zerbitzuko plantilla berregituratu ondoren, administrari laguntzaile bat kamineroen pisura aldatu da; bertan Batzordeak euskara zerbitzuaren eta gizarte hezitzailearen bulegoak ditu. Ikusi da egoitza horretan langileek tokia handiagoa behar dutela. Hori dela eta, Batzorde Nagusiak, Gizarte Ongizate, Hezkuntza, Musika, Kultura eta Kirol batzordeak 2023ko abuztuaren 22an hartutako erabakia berretsi, eta gehiengoz erabaki du, Erronkariko ordezkarien abstentzioarekin, bertan biltzen diren elkarteei jakinaraztea beren materiala Kebenko eta Gaztelu dauden gelara eraman behar dutela 15 eguneko epean, erabaki honen jakinarazpena jasotzen denetik hasita. Gela handia Batzordeko langileentzat geratuko da, eta hori egokitzeko aurrekontua eskatuko da.

1.- Aprobar las Condiciones Esenciales que, como Ley Fundamental del Contrato, regirán en la contratación de la elaboración del proyecto de rehabilitación de la Casa del Valle y la Dirección de Obra del mismo, con un precio máximo de licitación de 65.664 euros IVA EXCLUIDO, 79.453,44€ IVA INCLUIDO. Esta actuación se adjudicará mediante procedimiento abierto.

Se explica que el gasto se dividirá en dos mitades, una primera con la elaboración del proyecto, que se ejecutará ese año 2023, y una segunda conforme se vayan realizando las certificaciones de la obra.

El gasto para la realización de los trabajos se financiará con cargo a la partida 1.9200.6270000 del presupuesto de gasto de 2023.

7. PISO CAMINEROS.

Debido a la reestructuración de la plantilla en el SSB y el traslado de una Auxiliar Administrativa al piso de camineros, donde la Junta tiene las oficinas del Servicio de Euskera y Educación Social, se ha hecho necesario un mayor espacio para los/las trabajadores/as en dicho lugar. Es por ello que la Junta, ratificando el acuerdo adoptado en la Comisión de Bienestar Social, Educación, Escuela de Música, Cultura y Deporte de la Junta General del Valle de Roncal en pasado 22 de agosto de 2023, acuerda por mayoría, con la abstención de la representación de Roncal, comunicar a las asociaciones que ahí se reúnen la necesidad de que estas trasladen su material a la sala en la que ahora están ubicadas Kebenko y Gaztelu, en un plazo de 15 días desde que se reciba la notificación del presente acuerdo, quedando la sala grande para los/as trabajadores/as de la Junta. Se solicitará así mismo presupuesto para la adecuación y saneamiento de la sala grande.

8. APROBACIÓN PLAN ANTIFRAUDE



8. IRUZURRAREN AURKAKO PLANA ONESTEA

Erronkaribarko Batzorde Nagusiak zuzeneko dirulaguntza jasotzeko hitzarmen bat sinatu du, ekintzailtza eta mikroenpresak sustatzeko lurralde proiektu bat garatzeko, hori guztia Nafarroako Ekialdeko Pirinioetako Ekonomia Suspertzeko Planaren barruan, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan. Horren xedea da ibarrean banda zabala instalatzeko lanak finantzatzea. Orain beharrezkoa da iruzurraren aurkako plan da onestea.

Plan horren proposamena ordezkarien esku jarri da, eta aho batez erabaki da hori onestea eta dagokionari bidaltzea. Testua bere espedientean artxibatu da.

9. GALDE-ESKEAK

Tomas Urzainquik hartu du hitza, eta adierazi du abeltzainek Batzordera jo zutela ordenantzen zirriborroa eskatzeko, baina ez zaiela bidali. Hori dela eta, ezin izan dute ekarpenik egin.

Batzordeak erantzun dio 2021az geroztik partaidetza-prozesu bat garatu dela, eta bilera irekiak egin direla hainbat herritan.

Tomas Urzainquik, aldiz, esan du ez dela benetako prozesu parte-hartzaile bat izan, gai zehatzetan parte hartzerik izan ez dutelako. Bere ustez, haien parte-hartzea orain hasiko da, behin onetsitako testua jasoz gero.

Batzordeak gonbidatu du egokitzen jotzen dituen alegazioak eta ekarpenak ezarritako epean egitera, horiek aztertzeko.

Tras la firma del convenio por el que se regula la Concesión Directa de una subvención a la Junta General del Valle de Roncal destinada al Proyecto territorial para el equilibrio y la equidad de fomento del emprendimiento y microempresas en el marco del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia, como parte del Plan de Reactivación Económica de los Pirineos Orientales de Navarra, destinada a la financiación de los trabajos realizados por la instalación de la Banda Ancha en el Valle de Roncal, es necesaria la aprobación de un Plan Antifraude.

Puesto a disposición de los representantes la propuesta de dicho plan, se acuerda aprobarlo por unanimidad, ordenar su traslado a quien corresponda, quedando el texto archivado en el expediente de su razón.

9. RUEGOS Y PREGUNTAS

Intervine Tomas Urzainqui y expone que los ganaderos se dirigieron a la Junta solicitando el Borrador de las ordenanzas y no se les ha trasladado antes de esta Junta, afirmando que de esta forma no han podido participar ni realizar aportaciones.

Se le contesta que desde el año 2021 se ha venido realizando un proceso participativo celebrándose reuniones abiertas en distintos pueblos del valle.

Mantiene el Sr Tomás Urzainqui que realmente no ha sido un proceso participativo por no poder participar sobre nada en concreto y entiende que una vez se les traslade el texto que se ha aprobado inicialmente empezará realmente la participación para ellos.

Desde la Junta se invita a que en el plazo establecido se hagan las alegaciones y aportaciones que consideren oportunas para que la Junta estudie incluirlas.

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las 13:30 horas del día señalado al inicio, por el Sr. Presidente se levanta la sesión,



Junta General del
Valle de Roncal
Erronkaribarko
Batzorde Nagusia

Eta gai gehiagorik egon ez denez, 13:30etan Batzordeburuak bilkura amaitu du, honako akta hau idatzi, irakurri eta ontzat emana, bertaratutakoek sinaturik eta neronek, idazkariak, egiaztaturik.”

redactándose la presente Acta que, leída y hallada conforme, es firmado por todos los asistentes, conmigo el Secretario que certifico.